

ITZIAR ELORZA

(EKAKo Kidea)

Eguberri sasoiaren gero eta jende gehiagok hartzen dituen opor txikiak familiarekin batera gozatzeko. Euskal Herriko sendi ugari elurra aukeratzen dute urte berriari ongi etorria emateko, eta, bide batez, kirol pixka bat egiteko. Eski mota asko daudenez, familiako kide guztiek egin dezaketen kirola da, norberaren adinarekin eta gustuen arabera.

Pistako eskia edo alpinoa da modalitate ezagunena: elurtutako aldats batean behera norberaren abileziak mugatuko duen abiaduran irristatzea. Jende lasaiagoarentzat iraupen eskia edo nordikoa egokiagoa da. Eskiatzeko sistema hori iparraldeko herrialdeetan asmatu zuten, hain zuzen ere, elurtutako ordeka zabaletan ibili ahal izateko. Fondoko eskia ez da lasterka biziko jaitsiera bat, baizik eta paseatzearen modukoa da, baina taulen gainean jarri eta elurretan hondoratu gabe. Azkenik, eski motarik berriena (batik bat, gazteek praktikatzeko dute) *snowboard*-a da. Hori hautatzen dutenak, botak alboka erantsita dituen taula baten gainean irristatzen dira maldetan behera. Orekan oinarritzen da teknika hori eta surflariak erabiltzen dutenaren oso antzekoa da.

Materiala

Ekipo on batek ez du eskiazaile on bat egiten, baina, egia da, behin kirol horri buruzko ezagutza batzuk lortzen direnean, norberaren markak eta erronkak hobetu nahi izaten direla, eta, horretarako, kalitate handiagoko materiala erosten dela. Dena den, hasi berrientzako aukerarik onena, ekipoa eski estazioan bertan alokatzea da. Izan ere, toki horietan profesionalak aukeratzen dute materiala eskiazaile bakoitzaren beharren arabera.

Eskiak, bastoiak eta gainerakoak, desberdinak dira modalitatearen arabera. Alpinorako, eski zabalak behar izaten dira (7-9 zentimetroko zabalerakoak), eta luzera eskiazaile bakoitzaren altuera eta pisuaren arabera erabakitzen da. Botak plastikozkoak izaten dira, zurrunak, orkatilari mugitzea eragotzi behar baitiote. Erorketa bat izan edo bihurritze larri bat eginez gero, lokarriak berehala askatuko dira botatik. Bastoiak eraztun bat izan behar dute muturrean leku ordekatuetan eskiazaileak bere burua zutik eusteko eta aurrera joateko indarra egin ahal dezan.

Nordikoak beste eski eta lokarri mota batzuk eskatzen ditu. Taulek 4-5 zentimetro izango dute gehienez zabaleran, eta,



Eski mota bakoitzak material berezia eskatzen du, eta, hasi aurretik, hori kontuan hartu behar da. • EFE

Gero eta jende gehiago joaten da elurretara Gabonak pasatzera

gutxienez, bi metro luzeran. Oina finkatzeko, lokarri malgu batzuk izaten ditu, eta botak hantzen dira. Taulen azpialdea leun-leuna izaten da, eta argizariarekin igurtzen dira hobeto irrista daitezkeen.

Azkenik, *snowboard*-eko taulek alboko lokarriak eta horretarako propio prestatutako botak behar izaten dituzte. Bastoiak ez da erabiltzen, gorputzaren mugimenduen bidez lortzen baitute zutik egotea eski mota hori praktikatzeko dutenak.

Nolanahi ere, eski mota guztietarako janzkera berdintsua behar izaten da. Onena, hiru geruzen teoria jarraitzea da: barneko arropa, erdialdeko geruza eta kanpoko geruza. Barneko arropak izerdia xurgatu eta kanpora atera behar du. Arropa sintetikoa da gomendagarriena. Artilea eta algodoia baztertu egin behar dira: lehenak, beroa ematen du baina hezetasuna gordetzen du; bigarrenak, izerdia hoztu egiten du eta oso sentazio deserosoa sortzen du.

Hasi berrientzako aukerarik onena, eskiatzeko materiala estazioan alokatzea da

Erdialdeko geruzak barruan gorde behar du airea, eta, gainera, berotu. *Pollars*-ak dira hori guztia ondoen lortzen duten arropak, eta, horrez gain, oso arinak direnez, mugitzeko askatasun handia ematen dute. Azkenik, kanpoaldeko geruzak iragazkaitza izan behar du, haizetik babestu behar du, baina, era berean, izerdiari ateratzen laga behar dio.

Ez da ahaztu behar eskularruak ezinbestekoak direla. Iragazkaitzak eta beroak izan behar dute, eta, halaber, hatzak mugitzeko bezain malguak. Arropa horiek osatzeko, izpi ultramoleak iragazten dituzten eguzkitako betaurrekoak, babes handiko eguzkitarako krema eta ezpainak uneoro heze mantentzeko ukendua beharko ditugu.

Eskiatzeko araudiak

Autem elkartearen baitan bilduta dauden eski alpinoko estazioek pisten funtzionamendurako araudi komuna landu eta onartu zuten 1994ko ekaineko Batzar Nagusian.

Erremonte mekanikoetan besteen segurtasuna arriskuan jarri gabe ibili beharko dute erabiltzaileek, eta, horretarako, estazioko segurtasun argibide, ordena eta arauak jarraitu beharko dituzte. Norbaitek araudia

Eski estazioen eta federazioen araudiak jarraitzea komeni da arazorik ez izateko

betetzen ez badu, beste eskiazaileen edo instalazioen segurtasuna arriskuan jartzen badu, edo ordena publikoa apurtzen badu, erremonteak erabiltzea galaraz diezaioke zerbitzuaren arduradunak. Halaber, araudia betetzen ez duten erabiltzaileek istripuren bat izaten badute, estazioak ez du horren gaineko ardurarik izango. Arrazoi teknikoengatik, klimatologikoengatik zein beste arazo batzuegatik erremontea ixtea egongo da, baina arduradunak ez daude dirua itzultzera behartuta.

Eskiko Nazioarteko Federazioak pistetan ibiltzeko jokabide araudi bat dauka; FIS araudia esaten zaio:

- Estazioak erabakiko ditu zein pista dauden irekita eta horiek baino ezingo dira erabili.
- Pistetan ezingo da inor oinez ibili. Behar bezala ekipatuta ez dagoen inor ere ez; ez eta pistetara eramatea galarazita dauden tresnak daramatzan inor. Tresna horiek zeintzuk diren estazioek erabakitzen dute.

- Motordun ibilgailuekin estazioko langileak baino ezingo dira ibili pistetan, hain zuzen ere, mantenimendu lanak egiteko edo salbamendurako.
- Ezin da txakurrik sartu pistetan, estazioak onartutako kasu berezi-bereziengan salbu.

Garraio txartela ezin zaio inori eman. Galduz gero, estazioa ez da kargu egiten. Ikusteko moduko lekuan eraman behar da beti, eta norbaitek ez badarama, edo hondatuta baldin baduka, edo norbait dagokiona baino gehiago erabiltzen saiatzen bada, txartelak balio duenaren bikoitza ordaindu beharko du, eta, gainera, instalazioetatik alde egin beharko du.

Erabiltzaile bakoitza da bere buruaren segurtasunaren arduradun bakarra itxita dauden pistetan, eski ibilbideetan, pistetatik kanpoko eremuetan eta estaziotik kanpoko lekuetan. Eguraldia, elurraren egoera edo kontrolatu ezin den beste edozein baldintza aldatzen bada, estazioak ez du ezerean ardurarik hartuko.

Dena den, pisten erabiltzaileek pisten funtzionamenduari buruzko eta ireki dutenean elurrak ageri zuen egoeraren gaineko informazio guztia jasotzeko eskubidea dute. Nolanahi ere, arretaz ibiltzea komeni da kirol horrekin gozatzeko.